



Leitza argazki zaharretan

ZABALETA ALDUNTZIN, Julian; ETXEGOIEN JUANARENA, Jose

Leitza: Leitzako Udala, 2017, 304 orr.

ISBN: 978-84-697-2709-9

Azkeneko garai hauetan tokian tokiko kultur ondare immateriala berreskuratzeko asmoz hainbat ekimen ezberdin garatu izan dira Nafarroako herri eta eskualde askotan. Xede hau burutu nahian, ez dira gutxi izan argazki zaharren bilketaren bidetik jo dutenak, izan ere, ez dago zalantzarik zentzu horretan dokumentu grafiko hauen garrantzia begi bistakoa dela. Duela hamarkada bat ekin zioten zeregin horri Atarrabia eta Uharteko bezalako udalerrietan, eta bildutako irudiekin erakusketak antolatu eta liburu bana plazaratu zuten leku hauetan. Agoitz pixka bat beranduago sartu zen dinamika berean, eta gerora mota hauetako egitasmoak bultzatu dituzten herrien zerrenda (Mezkiritz, Añorbe, Auritz, Burlata, Garralda...) zabalduz joan da etenik gabe. Joan den urtean Leitzako herriari egokitu zitzaion txanda, eta, han eta hemen kuxkuxean ibili ondoren, etxeko zein kanpokoen laguntzarekin, baturiko erretratuekin aurreko udaberriaren kaleratu zuten oraingoan aurkeztuko dugun lan hau.

Leitzarren artean egitasmoa zabaldu eta bultzatzearen ardura bertako Udalak hartu zuen. Iaz Herriko Etxea zaharberritu eta birmoldatu zenetik ehun urte bete egin ziren; mendeurrenak abagune aproposa eskaintzen zuen herritarren parte-hartze anitza behar duen hau bezalako jarduera bat garatzeko. Julian Zabaleta, udalbatzaren kultur zinegotzia, eta Jose Etxegoien, zeregin hauetan dagoeneko eskarmentu handiko gizona, izan dira irudien bilketa, ondorengo sailkapena eta liburuaren edizioa aurrera eraman dutenak. Argitalpenean 600 argazki zahar baino gehiago aurkezten badira ere, guztira 2000 ale biltzera ailegatu ziren, beraz, aukeraketa gauzatzearena ez da lan erraza izan egileentzat. Imajinak, hauek irudikatzen duten ekintza edo gaia kontuan harturik, liburuan hamar atal ezberdinetan banatu dituzte.

Ohiko diosak eta hitzurreak eskaini ondoren, lanaren lehendabiziko orrialdeetan, herriko ikuspegi orokorrak azalduko dira; batzuk zerutik hartutako irudiak dira eta beste hainbat argazki panoramiko inguruko mendietatik eginak daude. Hasierako estampa hauek kronologikoki antolatuak daudenez, oso baliogarriak suertatzen dira denboran zehar herriak jasotako bilakaera urbanistikoa jarraitzeko. Hurrengo kapitulua udaletxeari berari eskainia dago, eta birmoldaketa burutu aurreko eta ondorengo irudiekin batera, eraikin berriaren planoak eta urte horietako udalbatza osatzen zuten kideen erretratuak ere agertuko dira. Herriko Etxea utzi eta Leitza dauden gainerako eraikuntza guztien irudiak azalduko dira ondoren. Atal hori osatzeko ezinbestekoak izan dira pasa den mendearen hasieran Leoncio Urabayenek hartutako argazkiak, bai eta 70. hamarkadaren amaieran Joxe Miel Elosegik egindakoak ere. Jarraian, kanpoko harremanak bermatzeko unean uneko komunikabide eta azpiegitura ezberdinen garrantzia agerian utziko da.

Hortik aurrera liburuak herritarren eguneroko bizipen eta jardunei erreparatuko die nagusiki. Horrela bada, eskola eta hezkuntzarekin zerikusirik duten irudi eta berriek,

nahiz ikasturte bakoitzeko kide guztiekin batera egin ohi ziren talde erretratuek ere, osatuko dute bosgarren kapitulua. Segidan, lehenengo baserritarren bizimodua eta geroko industrializazio prozesuaren harira sortu ziren ogibide berriak jorratuko dira. Pasa den mendearen joan-etorrian gizakion lan ereduaren arloan zer-nolako aldaketak jazo ziren ikusi ahal izatea bitxia eta adierazgarria suertatzen da; izan ere, uztarrria, laiak eta txondorrek erakusten dituzten estanpek lekukoa luzatuko diete lehendabiziko fabrikak eta haietan ezarri zen ekoizpen-kate sistema berria jasotzen dituzten irudiei. Beste aldetik, aspaldian edota iragan hurbilean ere, erlijioa bazen neurri handi batean gizartearen eraketa publikoa gidatzen zuena, beraz, urtean zehar burutzen ziren ekitaldi nagusiek halabeharrez elizarekin harreman zuzena zuten. Ospakizun horien gaineko argazkiak badira, hain zuzen, liburuaren zazpigarren atalean jasotakoak: prozesioak, kongresu eukaristikoaren saioak, erromeriak, korpus eguneko elizbirak, misioak...

Hurrengo bi kapituluetan, ordea, jendarte zibilak protagonismoa berreskuratuko du, eta herritarrek bultzaturiko kultur eta kirol ekintzen irudiek beteteko dituzte segidako orrialdeak. Kultur adierazpenei dagokienez, oso interesgarriak diren lehenengo lote eta antzara jokoari buruzko irudiak, bai eta herriko jarduera esanguratsu guztietan parte hartu duten txistulari eta dantzarien emanaldiak irudikatzen dituztenak ere agertuko zaizkigu atal horretan. Argitalpenak kirol arloaz diharduen atalean berriz, aizkolarien erronka eta pilota partidaren argazkiek toki nabarmena hartuko dute, harri-jasotzaileen erakustaldietan eta herri-kirolaren eremuan ere antzinean indarrean zeuden ahari talka eta palankariaren probetan jasotakoak kanpoan utzi gabe. Azkeneko atalean, askotariko gaien (elurteak, gerra garaia, Orixeri egindako omenaldia, emakumeen elkarreak...) argazkiekin saski-naski moduko bat osatu dute liburuari amaiera emateko.

Plazaratutakoa argazki-liburu bat bada ere, garai ezberdinetako idazle batzuek (Joseph-Augustin Chaho, Pascual Madoz, Julio Altadill, aita Barandiaran, Julio Caro Baroja, Patziku Perurena...) Leitzari buruz sorturiko testu interesgarriekin hornitu nahi izan dute egileek beraien lana. Edizioari borobila izateko falta zaion gauza bakarra bada argazki-oinean irudiaren jatorriari buruzko informazio osatuago bat aurkeztea. Laburbilduz eta amaitzeko, esan behar da emaitza orokorra oso positiboa dela; dudarik gabe, argitalpenak Leitzako bizilagunentzat bere memoria kolektiboaren testigantza paregabeko bat suposatzen du. Izan ere, aspaldiko bizimodua eta ohiturak ezagutu eta aintzat hartzeko, begietatik bereganatzen diren iraganaren lagin grafiko hauek bezalakorik ez dago. Era berean, honelako ekimenek testuinguru fisiko zehatz bati erreparatzen dioten arren, haien ekarpena oso garrantzitsua da Nafarroaren goitik beherako puzzlearen ikuspegi osoa lortzeko bidean, eta, oro har, herri xehearen bizipenek ere berezko tokia izan dezaten ohiko kontakizun historikoan.

Ricardo Gurbindo Gil